

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ayerdi lehendakariordeak dio euro-eskualdeak biderkatu egingo dituela Nafarroaren aukera komertzialak

*Horixe adierazi du gaur goizean Iruñean, eta mugaz gaindiko lankidetzaz "sistematikoa eta denboran iraunkorra" lortzearen aldeko apustua egin du*

Ostirala, 2017.eko otsailak 17

Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak gaur Iruñean adierazi du Akitania-Euskadi-Nafarroa euro-eskualdeak biderkatu egingo dituela Foru Komunitateko enpresek dituzten aukera komertzialak eta hazkunderako aukerak, "elkarrekin lan eginda indartsuagoak izango baikara gure garaiko erronka sozioekonomikoei aurre egiteko, ikuspegi partekatu batetik eta helburu bereberekin".

"Akitania-Euskadi-Nafarroa Euro-eskualdea, aukeren lurraldea" jardunaldiaren irekiera-saioan egin ditu adierazpenok Manu Ayerdik; gainera, mugaz gaindiko lankidetzaz "sistematikoa eta denboran iraunkorra" lortzearen aldeko apustua egin du, "hiru eskualdeetako aktore traktoreen inplikazioarekin eta lidergoarekin".

Zentzu horretan, Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak nabarmendu du osasuna, energia, nekazaritzako elikagaiak eta industria sortzaileak direla Nafarroa, Euskadi eta Akitaniako espezializazio adimentsuko estrategien lehentasunezko sektore komunak; aldi berean, hiru eskualdeek dute hainbat arlotan elkarrekin lan egiteko interesa, hala nola turismoan, industria aurreratuan edo 4.0 delakoan eta enpresen lehiakortasunean.

Ayerdi lehendakariordeak aitortu du euro-eskualdea osatzen duten hiru eskualdeak –iaz sartu zen Nafarroa– "dinamismo eta indar" handiko enpresa-sareak izateagatik nabarmentzen direla, bai eta per capita errenta handia izateagatik, berrikuntzan erreferente izateagatik, batez bestekoaren azpiko eskola-uzte tasak izateagatik eta goi-mailako tituludun kopuru handia izateagatik ere. "Nafarroa euro-eskualdean sartu izanari esker", jarraitu du Ayerdik, "Foru Komunitateko enpresak ingurune horren onuradun izango dira"; ia bederatzita milioi biztanle ditu euro-eskualdeak.

### Jardunaldiko beste mintzaldi batzuk

Adierazi bezala, Ayerdi lehendakariordeak eman dio hasiera gaur goizean Iruñean "Garapen Ekonomikoko ostiralak" zikloaren saio berri honi; Frantziako Nouvelle Aquitaine eskualdeko Mugaz Gaindiko Lankidetzarako eskualdeko kontseilari eta ordezkari Mathieu Berge jaunak, Pello Pellejero Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusiak eta Izaskun Goñi Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren

zuzendari nagusiak ere hartu dute parte gaurko jardunaldian.

Mathieu Berge frantziar kontseilariak dakarren lankidetzarako espazioa aurkeztu du, europar ikuspegiarekin; euro-eskualde hori lurraldeen arteko lankidetzarako europar elkarte da, 2011n Akitaniak eta Euskadik sortu zutena. Iaz sartu zen euro-eskualde horretan Nafarroa.

Pello Pellejerok, bestalde, adierazi du Foru Komunitatea euro-eskualdean sartu izanari esker "Europar lurraldeen arteko lankidetzaren arloan espaziorik egokienean" dagoela, Bruselak "lehenetsi egiten baititu esparru eta formatu horiek proiektuak europar funtsen bitartez finantzatzeko bere estrategian".

Azkenik, Izaskun Goñik lurraldeen arteko lankidetzarako europar talde edo elkarte horrek garapen sozioekonomikorako eskaintzen dituen aukerak zerrendatu ditu eta, horien artean, enpresetarako hornitzaile eta bezero kopuru handiagoa egongo dela nabarmendu du. Gainera, adierazi du punta-puntako industria dutela hiru eskualdeek, nekazaritzako elikagaien sektore nabarmena eta biztanle bakoitzeko unibertitate eta ezaqutza-zentro kopuru handia.